

Grekoa II

- **BATXILERGOA**
- **LANDIBE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

A AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderari:

Lisias, *Eratostenesen heriotzaren defentsan*, 4

Eratostenesen jokabidea

ἡγοῦμαι δέ, ὦ ἄνδρες, τοῦτό με δεῖν ἐπιδειξαί¹, ὡς ἐμοίχευεν Ἐρατοσθένης τὴν γυναῖκα τὴν ἐμὴν καὶ ἐκείνην τε διέφθειρε καὶ τοὺς παῖδας τοὺς ἐμοὺς ἥσχυνε καὶ ἐμὲ αὐτὸν ὕβρισεν εἰς τὴν οἰκίαν τὴν ἐμὴν εἰσιῶν.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: ἡγοῦμαι δέ, ὦ ἄνδρες, τοῦτό με δεῖν ἐπιδειξαί.
- 2 Aditz honen analisi morfologikoa: ὕβρισεν. Joka ezazu aditz hori indikatiboko geroaldian (aktiboa).
3. Izen honen analisi morfologikoa: γυναῖκα. Singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: παῖδας. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Historiografia Grezian: Herodoto eta Tuzidides.
6. Aristofanesen *Lisistrata*: emakumearen gaia Aristofanesen komedia horretan.

¹ ἐπιδειξαί: ἐπιδείκνυμι aditzaren aoristoko infinitiboa (aktiboa).

B AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Apolodoro, *Epitomea* VII, 12

Lestrigoiak

Λαιστρυγόνες¹ δ' ἦσαν ἀνδροφάγοι, καὶ αὐτῶν ἐβασίλευεν Ἀντιφάτης².
μαθεῖν³ οὖν Ὀδυσσεὺς βουλόμενος τοὺς κατοικοῦντας ἔπεμψε τινὰς
πευσομένους. τούτοις δὲ ἡ τοῦ βασιλέως θυγάτηρ συντυγχάνει καὶ αὐτοὺς
ἄγει πρὸς τὸν πατέρα.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: μαθεῖν οὖν Ὀδυσσεὺς βουλόμενος τοὺς κατοικοῦντας ἔπεμψε τινὰς πευσομένους.
2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἐβασίλευεν. Joka ezazu aditz hori indikatiboko aoristoan (aktiboa).
3. Izenordain honen analisi morfologikoa: τούτοις. Singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: πατέρα. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Komedia grekoa. Poeta komiko nagusiak.
6. Euripidesen *Medea*: obraren argumentua eta pertsonaia nagusiak.

¹ Λαιστρυγόνες: tribu baten izena, "lestrigoiak" (nom. pl.).

² Ἀντιφάτης: izen berezia, "Antifates" (nom. sing.).

³ μαθεῖν: μανθάνω aditzaren aoristoko infinitiboa (aktiboa).



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GREKOA II

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisisian eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzegatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzeagatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatutako obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri diren ala ez islatuko du.